



236. zenbakia

· URTARRILA 2024 ·

pulunpe



"BASABURUAN DAGO HERRI BAI

NAFARROAKO TXIKIENA

HAN JAIO NINTZEN ETA NAHI NUKE

GORA JASO BERE

LUZIA GONI

AIZAROTZ, 1928 - TIRAPU, 2020

Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria




BELAR TXARRAK

asfalto artean, datozen
kotxeei erreparatu gabe
tente, tinko, adoretu jaiotzen diren
belar ñimiñoen alde egiten dut nik

lorategi eta baratzetan
indartsu hazten diren
belar txarren aurrean makurtu

belar txarrak agerira irteten dira
eta ez dira erraz erauzten
berriz sortzea dute itxaropen bakar

(Pamiela, 2023)



Hautatu



3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

komunikazioa



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurдан, Denok bat elkarte eta Iñaki Ezkurra Osakar.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Joane Aldalur Luzia Goñiren murala margotzen, Aizarotzen, abenduaren 10ean.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urtarrilaren 9an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Porno belaunaldia?*

08

Kronika. *Denok bat*

10

Berezia. *Luzia Goñi Oliasi, omenaldia*

13

Albisteak.

16

Ekimenak. *Arraizko saihezbidea*

17

Herrian bertan. *Beuntzako ostatua*



20

Ardo Frexkoa. *Zuzentzen ziguten eta zuzendu gintuzten*

22

Aspaldiko Kontuak. *Basaburuko udaletxea (II)*

25

Elkarrizketa. *Taher Ali palestinarra*

27

Kirola. *Jon Patxi Okiñena eta Pablo Aldaz pilotariak*

30

Zer ikusi *amezti.eus-en*

32

Zer irakurri. *Urtarrila*

34

Jaiotzak eta heriotzak. *Azaroa*



Porno

belaualdia?

Haur eta gaztetxoan porno kontsumoarengatik kezka zabaltzen ari da

Haur eta gazteen pornografia kontsumoaren inguruko kezka geroz eta gehiago zabaltzen ari da gizartean. Datu batzuen arabera, geroz eta lehenago ikusten dute, sarbidea geroz eta errazago dutelako edo porno industriak berak geroz eta lehenago iristen delako haiengana. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna areagotzen duen pornografia hegemonikoaz ari gara. Alde batetik, kontsumo horren kalteak bildu nahi izan ditugu erreportaje honetan; eta, bestetik, guraso eta hezkuntza sistemaren kezkak. Horretarako, eskualdeko hainbat sexologorekin, gurasorekin eta irakaslerekin hitz egin dugu.

Puri-purian dagoen gaia da. Zenbat urterekin sartzen dira gazteak pornoa ikustera? Zer kalte izan dezake horrek? Sexologoek esan digutenez, datu gutxi ezagutzen dira, baina batzuk kezkagarriak dira: zenbait ume zortzi urterekin ere sartu izan dira pornoan, Pili Mikeo, sexologoa: "Hori da ezagutu den adinik txikiena. Baina, 10 urte bete baino lehen %9k ikusi du. Hori oso larria da, haien garuna ez dago prest ikusten ari direnarendako".

“ **Mikel Tapia, irakaslea:**
Keinuak, komentarioak,
soinuak egitea... egunero
ikusten
ditugu
lekuz
kanpoko
jarrerak ”



Esan bezala, harrabotsa sortzen ari den gaia da. Zergatik orain? Beharbada hedabideek zabaltzen hasi diren informazioa delako; eta, horrek, alarmak piztu ditu. Nolanahi ere, kezka gure eskualdera ere iritsi da. Mikel Tapia García del Valle (29) Gorputz Heziketako irakaslea da, bigarren hezkuntzan, Larraintzarko ikastetxean: "Jarreretan ikusten dugu. Ziur aski pornografian ikusten dituztenak imitatzen dituzte: keinuak, komentarioak, soinuak ateratzea dira ohiko txantxak... egunero ikusten ditugu lekuz kanpoko jarrerak".

Porno hegemonikoa

Pornoaren kontsumoaz eta kalteez hitz egiten dugunean, orokorrean, eredu bakarra dugu buruan: porno hegemonikoa, Pili Mikeo sexologoa: "Gizonezkoen ikuspegitik eta ikuspegi heterosexualetik egiten den pornoa izanen litzateke". Kezka, ereduak berak bakarrik ez, eredu horren bilakaerak ere sortzen du, beti matxista izan da, baina geroz eta bortitzagoa da, Patricia Valle, Larraintzarko Guraso Eskolako gidaria da, pedagogoa eta sexu-hezkuntzan aditua: "Eredu hori koitozentrista da, eta gizon bortitzaren estereotipoa agertzen zaigu non emakumea mendean hartzen duen. Gurasoak gaiari ezin aurre egiteak eta alternatibarik ez eskaintzeak kezkatzen ditu". Mikel Tapia, Larraintzarko irakaslea, aipatu bezala, kezkatzen dituen jarrerak ikusten ditu egunero: "Emakumearen gorputza gizarterako kontsumo objektua bihurtzea arazo larria da. Jarrera homofobikoek ere kezkatzen gaituzte. Oso ohikoa da oraindik "maricón el último" eta horrelakoak entzutea".

Nagusitzen den eredu horren eragina kezkatzen ditu Larraintzarko Sustraiak Guraso Elkartearen kideak diren Bakartxo Iragi (40) odietarra, Marta Zubieta (43) ultzamarra eta Lantzen bizi den Silvia Zabalza (45) ere. Hirurek sei



eta hamar urte bitarteko semeak eta alabak dituzte, baina datuak ikusita, pornoarekin kezkatzen hasiak dira eta, badakite, uste baino lehenago hitz egin beharko dutela horri buruz etxean. Bakartxo Iragiren semeak 9 eta alabak 6 urte ditu: "Segun zein adinetan, sexu harremanetan oraindik hasi ez zarenean eta bestelako harremanetan hasten ari zarenean, eraikitzen dituzunak horretan oinarritzea arriskutsua da". Silvia Zabalzak 8 urteko alaba eta 10 urteko semea ditu: "Alabaren kasuan zer onartuko duen kezkatzen nau, zer hartuko duen normaltzat, zure plazera alde batera utzi bestearen (mutilaren) gozamina garrantzitsuagoa delako, adibidez. Semearen kasuan justu kontrakoa da kezkatzen nauena, berak zer papera hartuko duen honen aurrean, oso bortitza da ikusten dutena, gainera". Marta Zubietak (43), 9 urteko semea eta 7 urteko alaba ditu: "Sexuaz haratago doa, eguneroko harremanetan eta tratuan ere eragina izanen du".

Pili Mikeo sexologoak ohartarazi duenez: "Sexualitatea ez dugu pornoarekin nahastu behar. Porno industria bat da eta sexualitatea erabiltzen du lan eduki gisa, baina industria bat da. Edonork ikusi dezake apenas plazerik ez dagoela, exekuzioa bakarrik, exekuzio oso gimnastiko bat eta plazer handia sortu dezaketen gauzen exekuzioa, baina plazerik ez da agertzen. Sentitzeak eta pentsatzeak ez du tokirik".

Adinean, behera

Edukiak berak kezka sortzen badu, are gehiago, ikusten dutenen adina hainbeste jaitsi denean. Pili Mikeok sexologoak aipatu bezala, ikerketa gutxi egin dira eta lagin txikiarekin. Horregatik, datuak orientatzeko bakarrik balio dute.

Silvia Zabalza, ama:
Alabaren kasuan, zer onartuko duen; eta, semearen kasuan, zer papera hartuko duen honen aurrean; horiek kezkatzen naute



Bakartxo Iragi, ama:
Eraikitzen dituzten harremanak pornoan oinarritzea arriskutsua da



Marta Zubietak, ama:
Sexuaz haratago doa, eguneroko harremanetan eta tratuan ere eragina izanen du

Dauden gutxien artean Save the Childrenen 2020ko txostena aipatu digute bai Mikeok baita Itsaso Bakedano sexologoak ere. 13 eta 17 urte bitarteko 1.680 nerabek erantzundako inkestekin eta 14 eta 18 urte bitarteko hamaika tailerretan parte hartutako gaztetxoekin osatu dute. Datu horien arabera, erdiak baino gehiagok 13 urte bete baino lehen ikusi du pornoa.

Zer kalte ekarri dezake horrek? Pili Mikeok azaldu digu: "Badakigu adin hain gazteetan ez dutela garunaren heltzeko prozesua bukatu. Gutxienez, 16 urterekin bukatzen du garunak prozesu hori, abstraktuki arrazoitzeko gaitasuna ematen diena, horren ondorioz garatzen dugu kritikatzeko gaitasuna, kokatzekoa. Horregatik, ikusten dena kritikatu gabe irensten da". Mikeok gehiago azaldu digu: "Inkesta horien arabera, hirutik batek ez du desberdintzen errealtatea eta fikzioa, hau da, pornoa ikusterakoan hori erreala dela uste dute, eta ez pelikula bat, eta hori oso larria da. Disneyeko pelikula bat errealtatea dela pentsatzea bezalakoa da. Ondorioz, sexuaren inguruko aurreiritzi oso distorsionatuak garatu ditzakete".



Porno

belaunaldia?

Informazio iturri bakarra

Baina, zergatik jotzen dute pornora? Patricia Valle, Guraso Eskolako hezitzailea: "Eskolan edo etxean hitz egiten ez denean, bestelako iturrietara jotzen dute. Hauek kalitatezko hezkuntza sexu-afektibo batetik aldentzen ditu eta pornografia bortitzenera eramaten ditu. Horrek norberaren gorputza eta sexualitatearen ezagutza distorsionatu du; eta, norberarekiko eta besteekiko tratu onak sortzen duen plazeraz aldentzen diren jarrera erotikoa hartzerara eramaten ditu".

Pili Mikeok helduok dugun ardura seinalatzen du: "Nik ez dut uste informazio bila ari direnik, irudiak bilatzen dira, helduek hain garrantzitsutzat jotzen duten horren irudiak. Helduok garrantzia emanen bagenio desioaz eta maitasunez elkar begiratzeari, adibidez, horren irudiak bilatuko litzukete. Baina publizitatearen eta pelikulen bidez denbora guztian esaten ari gara interesgarriena zakila sartzea eta ateratzea dela, beraz, horren irudiak bilatu nahi dituzte eta erraza dute. Gainera, ez diegu hitz egiten haiei gehien interesatzen zaienaz: nolakoa den beren gorputza, nola gozaten duen, plazera nolakoa den, plazera bilatzeko bideak zeintzuk diren, norbaitek erakartzen zaituenean nolakoa den hori, norbait maitatzea nolakoa den, nola hurbildu interesa pizten dizun norbaiti, nola esan baietz, nola esan ezetz; horretaz hitz egin ordez, arriskuen inguruan eta kontuz ibiltzearen inguruko bonbardaketa egiten diegu; eta, orduan, alden du egiten ditugu".

Pili Mikeo, sexologoa:

Helduok hain garrantzitsutzat jotzen dugun horren irudiak bilatzen dituzte eta erraza dute



Esan bezala, sarbidea erraza dute, baina, askotan, bidea, bestalde izaten da, porno industriak ere erraza duelako haiengana iristea. Patricia Valle: "Zortzi urterekin ikusi badute, pornoak haiek aurkitu dituelako izaten ohi da, eta ez alderantziz". Askotan, pentsaezinak diren tresnen bidez, gainera, Itsaso Bakedano sexologoak azaldu digunez: "Askok ez dakiten arren, Play Stationetik edo Xbox-etik asko sartzen dira pornoa ikustera. Gaur egun, sarera konektatzeko aukera ematen digun edozein gailutik XXX webgune batean sartu gaitzke. 2022an Porn Hob-ek argitaratu zuen txosteneko grafikoetan erraz ikusten ziren datuak. Erabiltzaile gehienak mugikorretik sartzen diren arren, PlayStationetik edo Xbox-etik ere asko sartzen dira". Hezkuntzan ere, nabaria da kezka, Mikel Tapia irakaslea: "Irakasleok eta hezkuntza komunitatea eseri beharko gara eta honen inguruan hausnartu. Nola joan dira azkeneko urteak? Ongi? Gaizki? Enpresa teknologikoen duten boterari buruz hausnartu behar dugu hezkuntzan, internetara uneoro sarbidea edukitzea ona da beraientzat? Gai dira?". Guraso Elkartetik esan digutenez ere, gero eta ohikoagoa da gelakideen gurasoen artean adostasunak bilatzea mugikorra lehenengo aldiz noiz eman erabakitzeko.

Sexu-heziketa, nahikoa?

Honen guztiaren ondorioz, eskoletan eskaintzen den sexu-hezkuntza nahikoa ote den ezbaian dago. Mikel Tapia, Larraintzarko irakaslea: "Arrastaka goaz. Eskoletan gero eta gehiago ematen da sexu-hezkuntza eta afektibitatea. Normalean kanpotik etortzen dira. Izan ere, gure arazoa da guk ez dugula prestakuntzarik. Irakasleak gelatik ateratzen gara eta hor gauza pila ateratzen dira. Hori oso ongi dago baina, noski, bi ordu urtean, edo DBHko etapa osoan behin bakarrik etortzen dira, edo bitan, ez dakit hori nahikoa den. Gainera, sexu-hezkuntza ez dago kurrikulumean materia gisa zehaztua. Bada elementu interdisziplinarra baina era bateratu batean jorrateak koordinazioa eskatzen du. Irakasleok lan karga handia dugu, ez dugu tresnarik ezta denborarik gauza haiei duten garrantzia emateko. Eskola proiektua eta hezkuntza proiektuan txertatuta eta oso ongi definituta egon beharko lukeen estrategia bat izan beharko litzateke".

Patricia Valle, Guraso Eskolako hezitzailea: "Ikastetxearen arabera aldatzen da. Batzuetan kalitatezko prestakuntza afektibo-sexualarekiko inplikazioa erabatekoa da. Irakasgai guztiak zeharkatzen ditu eta jarrerak eta pentsamendu kritikoa ere lantzen da. Baina, gehienetan, informazio puntuala ematera mugatzen da eta ez da gehiegi aldentzen haurdunaldiak eta sexu transmisioak infekzioak prebenitzeko guk geuk



“

Itsaso Bakedano, sexologia:
Play Stationetik ere
asko sartzen dira. Sarera
konektatzeko aukera
ematen duen edozein
gailutik sartu daiteke

Info +: www.itsasobakedano.eus
eta instagramean:
[@itsasobakedano](https://www.instagram.com/itsasobakedano)

”



ere jasotzen genituenetik. Irakasleekin eta ikasleekin egiten ditudan trebakuntzetan ikusten dudan arazoa denbora falta izaten da, modu jarrai batean lantzeko denborarik ez dute”.

Nafarroan, hobeto

Pili Mikeoren ustez, eskoletatik kanpoko prestakuntza ere alternatiba ederra da: “Gozamenezek bultzatzen dituen tailerrak, eta hauek ongi ezagutzen ditugu Basaburuan eta Ultzaman, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean asko bultzatu dituztelako, pornoaren oso alternatiba ona dira. Sexualitatea bizitzako atal guztietan dagoela azaltzeko, besteak beste. Gozamenez esku-hartze komunitarioko programa bat da eta gazteekin lan egiten du beraien aisialdi denboran. Erakundeek gazte koadrilaren bat baldin badute identifikatuta eta haiekin kontakturik badute, tailerrak edo ekintzak proposatzen die, sexualitatearen ingurukoak, besteak beste, baina bestelakoak ere bai”.

Pili Mikeok azaldu digunez, Nafarroan Estatuko beste erkidegoetan baino hobeto gaude: “Estatuko beste tokietan ez bezala, Nafarroako Gobernuko eskaera da, kanpoko profesionalak geletan ez sartzea. Zergatik? Programa oso bat dagoelako, 1978tik, irakaslegoari trebakuntza eskaintzen diona. Noski, ez da denetara heltzen, baina Nafarroa da Estatuan bakarria horrelako programa bat duena, Osasunbidetik eta Hezkuntzatik eskaintzen den programa. Tresna didaktiko ugari eskaintzen ditu, jarraipena eta balorazioa egiten zaie, datozen urteetan hobetzeko, familiekin ere lan egiten da, haiei ere prestakuntza eskainiz, eta, gainera, Gozamenez eskaintzen zaie. Honek zertan laguntzen du? Gaiaz arduratzen direnak hezkuntza arloan haiekin denbora

gehien egoten diren irakasleak direla. Haiek dira hobeto ezagutzen dituztenak, esku-hartze gaitasun gehien dutenak. Izan ere, ni gelara sartuta, bi edo hiru egunetan erantzun behar diot guztiari. Baina irakasle bat egunero egoten da bertan eta zalantzak argitu, egoerak konpondu, behar diren gaiak atera ditzake. Beraz, esan dezakegu Nafarroak legea betetzen duela eta legeak dio guztiok, gutxienez 3 eta 18 urte bitartean, sexu-heziketa jaso behar dugula. Modu sistematikoan legea betetzen ari den erkidego bakarria da, beste batzuek puntualki bakarrik betetzen dute hau. Hori ez dela nahikoa? Ez, hori oraindik ez da nahikoa”.

“

Patricia Valle, hezitzailea:
Zortzi urterekin ikusi
badute, pornoak haiek
aurkitu dituelako
izaten ohi da
Info + Instagramean:
[@patriciavallemena](https://www.instagram.com/patriciavallemena)

”



Datu esanguratsuenak

- 10 eta 15 urte bitarteko %93k erabiltzen du interneta, nahiz eta arrakala dagoen adinaren arabera eta landa eremuan bizi direnendako.
- 13 eta 17 urte bitarteko gazteen %63k noizbait ikusi du pornoa.
- %53,8ak 13 urte bete baino lehenago ikusi du lehenengo aldiz.
- Porno lehenengo aldiz ikusteko bataz besteko adina 12 urtekoa da.
- 10 urte baino gutxieneren artean, %9k ikusi du noizbait.
- 11 urte baino gehiagokoen artean 3tik 1 bilaketa aktibo baten ondorioz sartu da, mutilen kasuan, batez ere. Nabarmentzeko, bestetik, sartzeko bide hau nagusitzen dela genero ez-bitarrekoen artean. Pili Mikeo: “LGTBIQ komunitatekoek ez dute erreferenterik, horregatik bilaketa gehiago egiten dute”.

Save The Childrenen
txostena osorik ikusteko





Urteari behar bezalako bukaera eman diogu Lantzen

Abenduan, 2023 urteari agurra eman diogu, 16an hain zuzen. Ohiturari jarraituz, urteko azken ekitaldia, festa moduan egin dugu. Aurtengoan, Lanzko herrian bildu ginen 150 bazkide, hiru autobusetan hurbildurik.

Hasierako hitzordua elizan genuen; bertan, aurten hildako gure bazkideen aldeko meza izan genuen. Eliza, aspaldi ez bezala, lepo beteta zegoen, eta hildakoen izenak eta herriak aipaturik entzun genuen meza.

Meza ondoren, lehendakariak, urtean zehar elkarteak egindakoaren laburpena irakurri zuen eta ekintzetan parte hartzera animatu zuen jendea.

Tartea zegoenez, Lantz herria bisitatzeko aukera izan genuen ondoren, bere karrika eta plaza famatuetan barna ibili ginen.

Ostatuan egoteko aukera ere izan genuen eta gehienak handik pasa ginen tragotxoia egitera.

Esandako orduan autobusak hartu eta Almandozera joan ginen hango Beola jatetxean baikenuen bazkaria.

Han, harrera ederra egin ziguten, lehen solairua guretzat prestatuz. Mahai luzeetan banatuta eseri ginen. Aspaldi zen horrelako festa batetara hainbeste bazkide biltzen ez ginela, eta eskualdeko agintariek ere gurekin izan ziren. Aurtengoan, lehen aldiz, Imozko udalekoak ere bertaratu ziren, hangoak zenbait herritar bazkideku direlako.

Eskaini ziguten bazkari ederra eta bikaina, "ezkontzetakoaren" modukoa, egin ondoren, udalak eta Gaston autobusak emandako sariak zozketatu genituen. Mota desberdinetako sariak izan ziren;





ohiko elikagai kutxak gehienak, baina baita spa baleak, erosketak egiteko baleak eta neurriko zapatak egiteko balea ere.

Osotara, 17 lagun izan ziren sarituak.

Ondoren, Jose Angel musikariak alaitu zigun arratsaldea, kantak eta dantzak eraginez. Oso giro alaia sortu zen eta berehala pasa zitzaigun denbora. Zazpi t'erdia jo bezain pronto, autobusa hartu genuen etxera itzultzeko. Oraingoan ere, elkarrekin zeinen ongi pasatzen dugun zen ahoz aho zebilena, hurrengo urtean beste hainbeste egiteko gai izanen garen esperantzan.

Urteari hasiera emateko, urtarrilaren 25ean izanen dugu Batzar Orokorra. Batzar horretan




2023ko kontuak aurkeztuko dizkigute juntakoek, eta denon artean hitz egingen dugu urteko ekintzen inguruan, zer egin nahi dugun erabakitzeko. Datorren alean kontatuko dizuegu nola joan den batzarra. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat



Denok Bat
Jubilatuena Elkarte



Carrefour
express

Zugandik gertuago

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

9'00 - 20'00

LARUNBATA ETA IGANDEA

9'00-14'00 / 16'00 -20'00

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA • PUERTA DE ULZAMA

Aizarotzen pesta ederra

Lucia Goñi Olias, hil zitzaigun orain ia hiru urte, 2020ko martxoaren 22an. Eta 2023ko abenduaren 10ean egin diote omenaldi eder bat Aizarotzen jaio zen emakume honi. Bertsozale handia izan zen eta 47 urtetan hasi zen bertsoak idatziz jartzen eta han eta hemen kantatzen. Horrengatik, eta izan zuen izaera eta ibilbidea dela-eta, egin diote omenaldia.

Aizarotzen jaio, Gartzarongo bentara 7 urtetan joan zen bere bi senide eta gurasoekin. Aizarotz eta Erbitiko eskoletan ibili, eta oraindik neskato zela lanera joan behar izan zuen. Hortik gorakoak ez ditugu gaur hona ekarriko.

Omenaldia

Basandere feministen elkarteak ibili da omenaldia antolatze lanetan. Goizeko 12etan izan zen ekitaldi printzipala: Basaburuko Udaleko eta Aizarozko herriaren izenean hitza hartu zuten Marimar Antsorena eta Mikaela Elizalde.

Ondoren, Luciak bere garaian idatzitako bertso jarrien kantaldi bat eman ziguten. Bertsoen hautatze eta bakoitzarendako doinu egokien opatzea Oskozko Joana Ciganda eta Ekain Alegre Gil altsasuarra lana izan zen; kantatzea ere bai. Eta bertso sail bakoitzaren sarrera eta testuinguruen azaltzea Laura Martinena aizaroztarrarenak; ezin hobekiago egin zuen. Hiruak ederki baino ederkiago aritu ziren eta hainbat pasartetan hunkitzea ere erdietsi zuten. Zoragarria, benetan!

Kantuen txanda bukatu ondoren udalak Luciaren ohoretan jarritako plaka desestali eta, txalo zaparrada handi baten ondoren, bukatu zen ekitaldia.



Hemen, lehen lerroan, Luciaren familiakoak
(Patxi Oskotzen fotografia) ▲



Hemen, azken-azkeneko ukituak ematen
(Patxi Oskotzen fotografia) ▲

Aipatu gabe ezin utzi, jakina, lau gaztek Kultur etxeko bazterreko paretan pintatu zuten Luciaren irudia. Joane, Enara, Izaro eta Olatz aritu ziren lan horretan. Hor izanen dugu denon oroigarri!

Eguerdian, bazkaria kultur etxean eta, atsaldean, bertso saioa: Maialen Lujanbio, Saioa Alkaitza eta Alazne Untxalo.

Gure Lucia plaza emakumea zen, eta hil ondoren ere esatekoa jarri du. Egun eder bat utzi digu opari. Eta bere izena eramanen duen Aizaroko kultur etxea.



Aizarozko Kultur etxean Udalak eta herriak jarri dioten plaka. ▲

Bataioko urak hartu zituenean asmatu zuten, asmatu zutenez.

1928ko abenduaren 13an, Santa Lucia egunean jaio eta ia berehala bataiatu behar. Aizarotz parrokiak Arrarasko egiten baita eta baitzen, Arraratsa eraman zuten izugarritzko elurtea zegoela.

Neskato kozkorra omen, eta hala esan omen zion apezak Domingo aitari:

-Neskato majoa dauke, Domingo!

-Bai, hau hamabost urtetan ez'ta plazan dantzatu gabe geldittuko!

Nonbait, aitik zer edo zer igarri zion jaio berriari eta asmatu ere bai: ostatu, feria, dantza eta bertso, hil artio ez zuen atsedetik izan. Jakina, aitik apezari bat-bateko zirtoa bota zion.

Benito ere, Arrarasko ostatuan bizi zuen osaba, erdi bertsolaria zen. Odoletik zetorkion Luciari bertso kontu hori. Urak onak eta odola zer esanik ez, hobea. Apeza ere, Baraibarko semea zen Fermin Iriarte Otxotorena, ez zen nornahi -xelebrea izaki- eta aita izan berriari zirrikaka edo, berorreketan hitz egin zion, gradu pare bat goitiago jarriz: *neskato majoa dauke* esan baitzion.

Koinatua ere bertsoa

Familiak ere agurra eman nahi izan zion. Jose Astitz, azpiroztarrak eta Lorentza Goñi Oliasen alargunak, bi bertso eskaini zizkion Luzia zenari.

Martxoaren hogeitabian zan

Egun siñalau batian,

Euskal Telebistak homenaje bat

Ein nai zion egunian,

Zuk bi begiak itxi ziñuzen

Orduntxe bate-batian;

Aizu, Luzia, egongo zera

Beti gure biotzian.

1°.-OHARRA: Luziaren bizitzaz gehiago jakin nahi duenak, ikus beza Pulunpen, 2010eko urtean egindako elkarrizketa luzea, zatika emana (86, 87 eta 89 zenbakietan agertu zen)

2. OHARRA: 1991. urtean ere, Luciari omenaldi handia egin zitzaion Etxalekun. Orduko hartan Luciaz at Etxalekuko Agustin Belokiri eta Ihabengo Angel Aldatz Laseca bertsolariei egin zitzaian (Horien artean, Angel genuen plazaz plaza ibilitako bakarra)

Hiztegia

Aztatu: acertar bien. Hemen ibiltzen dugu, baina hiztegian (oraindik) ez dator.

-Izaera: izateko modua.

-Elurtea: elur-erauntsia. Handia denean esaten da.

-Zirtoa: erantzun zorrotza eta txispaduna. Gehienetan errimatuz izaten da.

-Aizarotz parrokiak Arrarasko egiten da. Iriberrri (Atetz) parrokiak Muskizkoa egiten da. Kasu hauetan esaldia horrela antolatzen da: Anotz, udalerriz, Ezkabartekoa egiten da (geografikoki Anotz Odietakoan dago eta)

-Berorreketan aritzea=Berorika aritzea. (Hemen *berorreketan aritzea* esaten dugu. Toki gehienetan *berorika aritzea*.)

Euskal trataera begirunezkoenean erabiltzen den izenordaina da Berori. Eta deklina bidea honako hau da: **Berori, berorrek, berorri, berorrentzat...**

-Begirunea: errespetua.
Begirunezkoa: errespetuzkoa.



Neguko garai hotzean loratzen den landarea

Etxe atarian kamelia zuhaitz eder bat izan dugu urtetan. Udazken eta negu garaian zuhaitz eta lore askok hostoak galtzen dituzten bitartean, landare honi lore ederrak ateratzen zaizkio: gorriak, larrosak edo zuriak. Negu betean bizi-bizi egoten den lorea da kamelia.

Asiatik ekarritako zuhaixka da kamelia landarea, bereziki Txina eta Japonen kokatu izan da. 1735ean, Linneo botanikoak eman zion izena loreari, Joseph Kamel erlijiolariari omenaldia eginez. Hortik dator Kamelia izena. Izan ere, erlijio gizon hura izan zen landarea Europara ekarri zuena, XVIII. mendean.

Behin Europara iritsita, dena den, lore berezi honek ez zuen berehalako arrakasta izan. 100 urte inguru pasatu behar izan ziren kontinenteko lorategi ederrenetan kameliak ikusten hasteko. Horretan, Alejandro Dumas idazlearen 'Kameliën dama' eleberri ezagunak zerikusi handia izan zuen. Eta, luxuzko

marka baten izenak ere ezagun egin du munduan barna...

Bistarako ederra, baina usainik ez

Larrosaren antza pixka bat izan dezake kolore larroreko kameliak. Horrelakoa da etxe atariko ere, eta behin baino gehiagotan egin dugu lorea sudurrera eramateko keinua. Baina, kamelia ez da larrosa: eder-ederra izanagatik ere, ez du usainik.

Kamelia japonikoa (*Camellia japonica*) da landare honen familian zabalduen dagoena: forma obalatuko hostoak ditu landare honek, kolore berde ilunekoak, eta hainbat koloretako lore ederrak ditu.

-15° inguruko temperaturei biziraun diezaioke kameliak

Leku fresko eta hezeak gustatzen zaizkio kamelia landareari, itzalean edo erdi-itzalean kokatua egotea komeni da, posible den heinean, iparrera ematen duen toki batean. -15° inguru arteko temperaturei eusteko gai da landare hau neguan, baina, loratzeko temperatura egokiena, 12° ingurukoa izaten da.

Sinbolikoki

Kamelialorearekin lotutako hainbat kondaira zahar daude Japonian. Estimuekin, miresmenekin eta edertasunarekin lotzen da landarea. Loreak ez ditu petaloak galtzen, eta ezaugarri hori bizitzako gorabeherei aurre egiten dieten pertsona indartsuekin lotzen da. Loreen kolorearen arabera, esanahia ere alda daiteke, dena den. Kamelia txuriaren kasuan, estimu, esker on eta miresmena sinbolizatzen ditu. Larrosak, berriz, lorea oparitzen zaion pertsona hurbil izateko desioa adierazten du. Bukatzeko, kamelia gorriak, maitasuna eta itxaropena sinbolizatzen ditu.



Kamelia ▲



Urritzola-Galaingo Herrikutxan, gelditu gabe

Abendutik hasita, urte berrira arte, Urritzola-Galainen ez dira gelditzen. Ohikoa den bezala, Herrikutxa elkarteko bazkideen eguna ospatu zuten abenduaren 3an. Ia herritar guztiek parte hartu zuten, bermuta eta gero, elkartean bertan egin zen bazkarian. Lehenengo, pestan agertu ziren 13 umeek bazkaldu zuten; ondoren, 47 heldu ere bildu ziren bapo jateko. Bazkalondoa, Iñaki Andueza akordeolariak girotu zuen, dantza eta abestia ez zen falta izan, beraz.

Abenduaren 24an, iluntzean Olentzero eta Mari Domingi, Napo astoak lagunduta, herria bisitatu zuten. Arañoztik heldu zirela, herri osoa zuten zain, plazan. Batez ere txikien urduritasuna zen nabaria. Herrikutxa elkartean indarrak, urdaiazpikoa, gazta eta ardoa hartu zuten. Ondoren, haurrendako opariak banatu eta gero, Olaguerako bidea jarraitu zuten. Bitartean, Herrikutxan, elkarteak sustatzen duen saskien zozketari ekin zioten. Migel Angel Ezkurra eta Mikel Ezkurra, Azpikoetxeakoak, izan ziren saridunak. Zorionak!

Bukatzeko, urtetxak ere izan dituzte Urritzola-Galainen, urtero bezala. Urtarrilaren 1ean goizean gaztetxoak herriko etxe guztietara hurbildu ziren urtetxak bilduz. Denetara 18 etxetan egon ziren, goxoki, fruitu lehor eta beste gozo mordoak jasoz.



Iñaki Ezkurra Osakar



▲ Urtetxak Urritzola-Galainen

ESCAPE ROOM ITINERANTE EN CEDERNA GARALUR

EL DESAFÍO DE LA CONEXIÓN RURAL

21

Enero
Urtarrila

DONEZTEBE

Herrigune

10

Febrero
Otsaila

LUMBIER

Centro Cívico

17

Febrero
Otsaila

SANGÜESA

Palacio Valle Santoro

16

Marzo
Martxoa

ORBAITZETA

Palacio Fábrica Armas

23

Marzo
Martxoa

ALTSASU

Casa Juventud

24

Marzo
Martxoa

OTSAGABIA / OCHAGAVIA

Centro Cívico de Ochagavía

ESCAPE ROOM IBILTARIA CEDERNA GARALUR

LANDA-KONEXIOAREN ERRONKA

ESCAPE THE CITY

Dinamiza Dinamizatzailea

GRATUITOS - Es necesario inscribirse
DOAINIK - Izen ematea derrigorrezkoa

Inscríbete
Izena eman

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural

Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernua

ZONA MEDIA
GRUPO DE ACCIÓN LOCAL



Más información
conectanavarrarural.org

CONECTA NAVARRA RURAL
Local, sostenible y digital

LANDA NAFARROA LOTU
Taldeak, jarangarri eta digitalak



Sarek deitutako Bilboko manifestaziorako, autobusak

Urtero bezala, Sarek manifestazioa deitu du Bilbon. Aurten, urtarrilaren 13an izanen da eta leloa: konponbiderako giltzak. Eskualdean autobusak jarriko dira.

Bilboko La Casillatik aterako da manifestazioa, 16:00etan. Horregatik, 13:00ak eta 14:00ak bitartean izanen dira autobusaren geldialdiak, Larraintzartik hasita, Irutzuneraino. Larraintzarko Bentan, Jauntsarasko eskolan, Urritzan eta Matxainen geldituko da autobusa. Autobusean izena emateko Apeztegi berrin eta Aizarozko ostatueta egin daiteke. Gainera, Ultzamako eta Atezko herritarrek Nikasiori deitu behar diote; eta, Odietakoek, Zirori. Imozkoen kasuan, Zapari urtarrilaren 8a baino lehen eta, hortik aurrera, Zepelori.


Konponbiderako giltzak da aurtengo leloa, Sareko irakurketan adierazten den bezala,

konponbideari atek ireki nahi diotelako: "Adierazi nahi dugu prest gaudela konponbiderako, elkarbizitzarako, biktima guztien minen errespeturako eta presoan etxerako biderako atek irekiko dituzten giltzak gure eskuetan hartzeko, lege arruntak dion bidetik, hamarkadetan zehar aplikatzen ari zaizkien salbuespenak betiko baztertuz". Irakurketa osorik duzue Sareko webgunean.

Webgunean, manifestura atxikitzeko aukera ere aurkituko duzue. Basaburuan eta Imotzen 90 pertsonak egin dute dagoeneko.

Bilboko manifestazioa urtarrilaren 13rako dietu da. Aurretik, abenduaren 29an, elkarretaratzeak egin dira hainbat herritan. Baita gure eskualdean ere.

Sareren irakurketa, osorik



Alaia Martin eta Josu Sanjurjo, Etxalekun

Bertsotaria izanen da, Imotzen, urtarrilaren 27an. Alaia Martin eta Josu Sanjurjo bertsolariak izanen dira eta Endika Legarrak jarriko dizkie gaiak. Etxalekuko biltokian izanen da, 21:00etan, esan bezala, urtarrilaren 27an, larunbatarekin. Afariaren prezioa 25 eurokoa da eta izena emateko 696 561 504 edo 639 253 259 telefonoetara deitu behar da.

Bertsotaria izanen da Imozko udalak eguberrietarako prestatutako egitarauari amaiera emanen dio. Abenduaren 23tik honera, kontzertua, ihes gela, ipuin kontalaria eta beste hainbat ekimen izan dituzte, euskaraz. Azkena, urtarrilaren 27ko bertsotaria.



Larraitzarko kirolariei omenaldia egin diete

Herri txikia izanagatik ere, kirol desberdinetan izen handiak eman ditu Larraitzarrek. Hor daude Andoni Gaskue pilotari ezaguna, Cuco Ziganda Osasunako eta Athletic-eko jokalaria eta entrenatzailea izana, Anaitz Arbilla Eibarko futbolaria, Carlota Ziganda golf jokalaria, eta Julian Lajos pilotari zendua, beste askoren artean. Abenduaren 24an egin zuten ekitaldia.

Bada, eguberrietan herrian izaten direla aprobetxatuz, omenaldia egin nahi izan die bere kirolariei Larraitzarrek. Kontzejuak antolatu zuten omenaldi ekitaldi xumea, eta giro ederrean elkartu ziren diziiplina desberdinetako kirolariok. "Harro gaude lau kirolariok gure herri txiki hau munduan, Europan nahiz Euskal Herrian ezagun egiteagatik", aitortu zien kontzejuko alkateak kirolarioi.

Amaitzeko, Larraitzarkoak ez baina oso hurbilekoak dituzten beste bi kirolari ere gogoan izan zituzten: Peio Etxeberria pilotari zenoztarra eta Aritz Begino Auzako pilotari erretiratua.



▲ Herriarren berotasuna eta esker ona jaso zuten Larraitzarko kirolariek omenaldian.

Segurtasun eske, N121 errepidea moztu zuten herritarrek abenduaren 15ean

Urteak daramatzate auzokideek Arraizko Benten inguruan N-121-A errepidearen saihesbidea eskatzen, errepide zati horren arriskua dela eta. Izan ere, asko izan dira bertan azken urteotan gertatutako istripuak, eta herritarrek zinez kezkatuak daude. Abenduaren 15ean errepide mozketa egin zuten, protesta moduan.

“2019ko irailaren 22a: hildako bat eta hiru zauritu larri N-121-Aean, Arraitzen, gertatutako istripu batean. 2022ko azaroaren 11: bi kamioilari zaurituak toki berean gertatutako beste istripu batean. 2023ko ekainaren 28a: pertsona bat zauritua, leku berean. 2023ko azaroaren 23a: kamioi bat errepidetik atera da eta hesi baten kontra jo du Arraizko Benten parean, ...”. Trafiko istripuei lotutako albiste txar asko topatu daitezke egunkarietako hemerroteketan. N-121-A errepidea, Arraizko Benten zati horretan, gune gorria da. Horregatik ari dira herritarrek azken urteotan trafikoa desbideratzeko saihesbidea eskatzen.

“Herritarrek oso kezkatuta gaude”

Joxe Mari Ibarra Etxenike arraiztarraren hitzak dira. Abenduaren 15eko errepide mozketan parte hartu zuen Ibarrak, beste herritar askorekin batera. Ordu laurdenez moztu zuten errepidea, Nafarroako Gobernuari exijitzeko egoerari irtenbidea eman diezaion. Horretarako, saihesbidea eraikitzea da aukerarik onena, haien ustez, baina beste neurri batzuk ere hartu ditzaketela diote. “Errepidearen zati horretan, abiadura handian pasatzen dira ibilgailuak. Badago radar bat, baina 80km orduko muga du, eta uste dugu muga hori jaitea beste aukera on bat litzatekeela”, aldarrikatu du Ibarrak.

Batez beste, N-121-A errepideko Arraizko paretik 10.000 ibilgailu inguru pasatzen dira egunean, eta horietatik 2.800 kamioiak dira. Trafiko pisu handia da, errepideak herria zeharkatzen duela kontuan izanda. “Duela gutxi, kamioi batek herriko etxe bateko balkoia jo zuen”, gehitu du herritarrek.

Saihesbidea

Ustez, herritarrek trafikoa desbideratzeko eskatzen duten saihesbidearen proiektua aurrera eramateko asmoa adierazi du Nafarroako Gobernuak. 2021eko uztailan argitaratu zuenez, Obra Publikoak 600.000 euroko aurrekontua lizitatu zuen N-121-A errepidean hiru saihesbide edo bariante eraikitzeko: Olaben bata, Burutainen bestea, eta Arraizko Bentetan azkena. Aurkeztu zutenaren arabera, errepidearen zentzu bakoitzeko bi karril izanen lituzke etorkizuneko saihesbideak, trafikoa hiru herri-guneetatik urrutiratzeko.

Proiektuaren asmoa argitaratu arren, oraindik mugimendurik ez da egon. “Hiru urte daramatzagu esperoan, baina momentuz ez da ezer egin”, adierazi zuten herritarrek protestan. Ikusiko dugu datozen hilabeteotan protestek eta herritarren eskakizunek erantzunik izanen ote duten.



Errepide mozketa, abenduaren 15ean ▲



Beuntzako

Ostatua

Bi basaburuarren eskutik, berriz ere zabalik

Izaro Ainitz Paesa Etxaniz itsasoarrak hartu zuen urrian Beuntzako Ostatuaren kudeaketa, eta berarekin batera ari da lanean Jone Alsua Cillero jauntsarastarra. Gazteak dira biak ere, eta ikasketekin uztartzen dute ostatuko lana. Alsua elkarrizketatu dugu haien eguneroko martxaz gehiago jakiteko.

Nolatan animatu zarete Beuntzako Ostatua hartzera, ba al zenuten harremanik ostat-laritzarekin lehenagotik?

Bai, Izarok taberna askotan egin izan du lan aurretik, Beuntzako Ostatua hartu baino lehen Asiainen ari zen lanean. Nire kasuan, gurasoek badute catering proiektu bat, eta be-raz bai, badut esperientzia.

Nola suertatu zen aukera? Izan ere, ikasketekin uztartzen duzue lana, ezta?

Bai, biak gara ikasleak. Izarori sortu zitzaion aukera, oker ez banago, ezagunen batek aipatu zion Beuntzako Ostatua itxita zegoela, eta norbait hartzea pentsatzen ari zirela... eta, hori entzutean, ausartu egin zen, aurrera egitea erabaki zuen. Egia da esperientzia bazuela aurretik, baina langile bezala aritua zen soilik, kudeaketarena ez da gauza bera.

Zer nolako erantzuna izan duzue momentuz herritarren partetik?

Oso ongi hartu gaituzte. Baditugu honezkero kuadrilla nahiko finko batzuk maiz etortzen direnak, eta gu behintzat oso pozik gaude haiekin. Uste dut ona dela herritarrentzat elkar-tzeko beste toki bat edukitzea, hemen inguruan Izarpeko aukera bakarra zegoen,

eta orain, badute asteburuetarako beste taberna bat ere.

Festa bereziarekin eman zenioten hasiera, ezta?

Bai, urriaren 11n irekiera festa berezia egin genuen. Egunean zehar pikatzeko gauzak atera zituen Izarok, tortilak, pintxoak, patatak... eta barruan musika egon zen, festa giroa jar-tzeko.

Tabernako eskaintzaz gain, bestelako ekimenak antolatzeke asmorik baduzue?

Bai, gogoz gaude gauzak proposatzeko, adin guztietako jendearentzat. Esaterako, umeentzako zine gauak egiteko ideia dugu burutan, eta helduentzako bestelako ekimenak ere bai. Esaterako, abenduaren 31n kontzertu akustiko bat izan dugu, jendea hona hurbiltzeko eta musikaz gozatzeko.

Ostiraletik igandera irekita

Eskaintza: plater konbinatuak, bokatak eta pintxoak. Eguerdietan menuak ere ematen dituzte.



▲ Bigazteak, Beuntzako ostatu atarian



Alain Garcia Recalde, Iraizozko ostatuko saskiaren irabazle



Gartzarongo haurrak, baserritar jantziak soinean



Berueteko gazteak Olentzeron



Lizasoko urtetxak



Alkoztar haur eta gazte, Olentzerorekin



Olentzero Alkotzen



Eltzaburuko urtetxak



Auzako Naroa Telletxea, Eltzaburuko Maika Iraizoz eta Lizasoko Maialen Marturet. Lizasoko San Silvestre lasterketan



Bea eta Aixa



Ana, Amaia, Idoia eta Virginia.



Zuzentzen ziguten eta zuzendu gintuzten (I)

Pilotan ere ikasi giñun

Maisu? Maistu edo maisu, berdin zait.

Bizitzarako hezten edo irakasten dutenak maisuak dira eta maisu hoberenak etxean beharkogenituzke topatu: lehenik gurasoak, ondoren aitatxi-amatxi eta osaba-izebak. Edo, agian, senide zaharragoren bat? Gaurko egunez nekez, hainen senide kopuru murrirtza izaten baita!

Maisuak ziren lehenago, bai etxean eta bai eskolan. Eskolan, orain, irakaste gehiago da, gairen bat erakusteen dutenak, alegia. Maisurik ez da. Maisurik topatzen ote dugu etxeko xokoan? Behar bai, baina maisu izate hori... "haurrei dena utzi, dena utzi" izaten omen da oraingo moda. Hala diote behintzat.

Dena dela, egia aitortu behar denez, nik eskolan ez dut maisurik ezagutu.

Dena dela, familiaz eta eskolaz kanpo ere izan litezke maisuak: karrikan, pilotalekuan, lantokian... Nonahi topa liteke maisuren bat. Hala ere, etxeko maisuena izaten da oinarria, zutabea eta teilatua. Dena dela, gaur ez nator etxeko maisuez

aipamenik egitera, gaur beste maisu batzuek hitz egin nahi nuke: plaza eta karriketakoez. Nornahiri ikas diezaiokezu zerbait, baina izaten da maisu lanak hartzen dituenik, gazteagoei edo ezjakinei erakustea gustatzen zaionik, eta eskertzekoa da. Guk izan dugu bakarren bat, edo pareren bat.

Zuzentzen ziguten

Nik, guraso bezala, eskola bati gauza apurra eskatzen diot, oso gutxi: hizketan trebatzea, idazten ikastea eta lau erregelak. Ez dut deus gehiagorik eskatzen, eta ez da gutxi. Gauza horiek ikasiko balituzte, kontent nengoke. Hizketan eta idazten irakasten al da ba orain? Eskoletan ez dute erakusten, edo gure hurrek ez dute ikasten. Nonbait badago okerra, bai horixe! Hizketan dakien haur bat ez duzu ikusiko, ez duzu entzuten hizketan zuzen ari denik. Ez eta zuzen samar ere! Ezta hurrik ere!

Gu ere, karrikan, nonbait gaizki ikasi, erdarak jaio orduko kutsatuak izan, edo ez dakit zer, baina plazan, adibidez

-Pilotan ibilli bihar' duu

Eta plazako bankutik, Juanikok edo Juanitok:

-Pilotan ez duk ibiltzen. Pilotan ai i'ttau (Hori hiketan, hiketan egiten baitziguten; eta zuketan, berriz: pilotan ez da ibiltzen, **pilotan ari** egiten da)

Bai, hona lehen ikasgaia: Pilotan ari, hizketan bezala, ari, ari, lanean ari edo musean ari. Aldiz, oinez ibili, jostaketan ibili...

Hizketan ari, pilotan ari, eta ardo frexko gozoa, lehengo zaharretan. Hizketan beti zaharretatik ikasten da eta haiei kopiatuz. Eta ariz. Ariz, ariz, ikasten dugu denok eta dakitenei kopiatuz. Ardo frexko gozoa beharko genuke edan.



Txurdan

Hiztegia eta besterik

Behar bai: tener que haber, tener que ser.

Zuzen samar. Samar oinarrizko hitza da, askotan erabiltzen dutena euskaldunek. Orain dena da **pixka bat**, erdararen kalkoa, hizketa moteltzen, zakartzen eta usteltzen duena.

Eskolaz kanpo: eskolatik at

Ezta hurrik ere!: Ez da pentsatu ere! Ezta batto ere!

Zutabea: pilarea

Hiketan: a) Hiketan ari. B) Hika ari. Guk lehena ibiltzen dugu. Biak berdin dira.

Lanean ari: "lana egin" gurean oso itsusia da, lanean ari esan behar da.



Hona hemen Etxalekuko plaza. Euskaraz ikasteko toki bikaina zen (Patxi Oskotzen fotografia)



Maistruak eta ezjakinak

Azkenekoan maisu kontuekin hasi, plazako giroarekin segi eta pilotan bukatu genuen, pilotan ariz. Pilotan? Badakizu? Orain pilotan ikusten ditudan haurren lautatik batek ere ez daki tantoak kontatzen. Hainbeste pilota telebistan, pilota eskoletara eraman haurrak, eta kontatzen ere ikasi ez? Edo pilota irakasleak dira ez dakitenak euskaraz? Ordu batez ikas litekeen pilota hiztegia ez al dakite?

Plazara, eskolarik ez bazen, goiz joaten ginen batzuetan. Hori, batzuetan bakarrik, gurasoengandik desagertu eta alde egin nahi ez genuenean, alegia. Batzuetan bakarrik.

Igande goiza eta plazan Mieliko, kask, kask eta kask, pilotan:

Etxetik atera eta nik Mielikori:

-Audo etorri yaiz!!!

Plazako muturretik Juanikok:

-Audo o goiz?

-Goiz, goiz, esa'nai nun!

-Aaaaa!

Ez baita berdin, **ez baita dena** berdin. Hala iruditu arren, dena ez da berdin.

Ilunabarretan ere joaten ginen ba plazara, ilun aurrean; elkarrengana bildu, etxera hurbildu baino lehen, hizketan aritzera. Egun guzia aski ez, dirudienez, eta hala, iluntze hartan, guretako batek dio:

-Astoi kaprestuk jarri-ta eta ez yun ba ostikoka hasi? Eztala baietz, Joxe Ramon?

Eta hurbilean izan Juanito eta bat-batean:

-Eztala baietz? Ze duk hori? Eztala-kin ez al duk aski?

Ageriko gauza, eskolan ikasitako erdararen kalakoa: *A que sí? Edo "verdad que sí"*

Zenbat denboraz ibili ginen kontrako bidetik? Ez asko, bigarreanean edo hirugarren zuzenketatik aurrera, ikasi eta zuzendu. Euskaraz, **eztala?** baita, ahozkoan alegia. Eta idatzizkoan, ongi idatzita, **ez da hala?**

Zaharragoei errespetua genien, nahiz noizbehinka ere kritikatzten genituen, ez pentsa. Zaharragoei errespetua, eta batez ere guk baino gehiago zekitenei begirunea. Gaurko egunean ere bai? Errespetua eta begirunea ba al dute ba zenbait

gaztek? Erakusten al diete ba errespetua izaten gurasoek?

Maisuak genituen Juaniko eta Juanito, gu baino 15-16 urtez zaharragoak. Zuzentzen ziguten eta guk ongi hartu. *Aittu eta ikasi, aittu eta ikasi. Horretxegatik ttut gogoan eta estimatzen maistruk; eta haiek eakutsie. Geigo ikasi ez ba'ut buruk geigorako eman ez delako izain da. Edo eskolan edo kolegioan erdias geiegi ikasi nulakos. Ez bakizu ere, erdiak traba itten dio euskiai. Edo eskoletako orduko pedagogia e'tzen biar bezalakoa. Gaurkoa bai?*

Iltze bat sartu gabe nik ezin utzi: orain pedagogia hobe al darabilte? Euskaraz eman ikasgaiak eta ez dute ikasten euskaraz. Nola liteke hori?

Hurren artio, jaun-andre eta gazte guzioi!



Txurdan

Hiztegia

Kaprestua=kabestrua: cabestro.

Abrei burutik lotuta eramateko jartzen zaien aparejua. Hemen kaprestu hitza ibiltzen genuen.

Iruditu arren: irudituagatik

esanahia du hemen. Beste esanahi franko ere baditu.

Berdinak al dira ilunabar-ilun aurrean-iluntzea?

Esanahi berdintsua baina denak beharrezkoak. Ibili beharrezkoak. Ahoz ibiltzen zituzten eta idatziz ere ibili behar dira.

Errespetua edo begirunea.

"Errespetua" ibili behar al du ba beti? Begirunea hitz ederra da.

Esataria: locutor



▲ Plazako idazkuna, 1921ekoa. Hori ere, toki gehienetan ez bezala, euskaraz jarri zuten.



Basaburuko udaletxea (II)

Ez zen berehalakoan egin

(Aurreko Pulunpen atera genuen lehen parte)

Berute, ibarreko herriburua?

Hartu ziren erabakiak, dena zen martxan, baina Jauntsaratsek lurrik eman nahi ez eta hori zela-eta, Beruete kontzejuak debalde eskaini zuen etxe bat, non eta bertan eginen ziren batzarreak, medikuaren egoitza ere Beruete izanen zen... eta funtzionarioendako bizitzak. Hitz batez, bertan kokatuko zen ibarreko herriburua.

1893ko uztailaren 16an, igandea, eta atsaldeko bi orduetan batzarrera deitu eta erabaki zen Beruete eskaintza herri guzietara pasatzea ea zer zioten, zeren eskaintza honekin 20.000-25.000 pezeta arteko aurrezteak izanen baitzen.

Bai, pasatuko zuten abisua herri guzietara, baina aldeko erantzun handirik ez zen etorri dirudienez. Nola? Errepide printzipala, ibarra aldez beste gurutzatzen zuena, egin berri samarra eta udaletxea Beruete egin? Ez, ez zen oso bidezkoa!

Aizarotzen ere etxea eman nahi

Gauzak luzatzen zihoazen eta alkatea berantetsirik, abuztuaren seian, igandea, eta atsaldeko bietarako batzarrera deitu zuen lanak subastara ateratzeko.

Udala eta beintzenako guziek bere adostasuna azaldu zuten obren subasta Nafarroako Boletinean ateratzeko, lanen adjudikazioa hil honen 27an egiteko. Dena dela, ez zen erabateko adostasunik izan, Igoako **Matxineko** Jose Clemente Lizaso Astitzek, bere desadostasuna azaldu zuen **Aizarozko Jaunak** etxe bat eskaini zuelako, bertan udal zerbitzuak jartzeko. Eskaintza hau ere ez zen nahikoa izan.

Hau da hau, gauzak ziztu bizian egitea!

Abuztuaren 6an Boletinean ateratzeko erabaki eta 27an, igandea, eta goizeko hamar eta erdietan, berriz batzarrea, adjudikazio baldintzak onartu eta lanak emateko.

Baldintzen artean honako hauek azpimarratuko genituzke:

-Irailaren 10erako obrak hasiak beharko dute izan eta bukatu azaroaren hondarrerako (Paperak laster egin eta obrak lasterrago. Horrelakorik gaur egunean sinestea ere lanak ematen ditu)

Obrak nola ordaindu: bost partetan: bostetik bat zimenduak atera orduko; bigarren bostena, paretak altxatu bezain agudo; hirugarren bostena teilatua eman bezain laster; laugarren bostena obrak bukatzean. Eta azken bostena urtebetera.

Subastan jotzen zen tanto bakoitza 250 pzta.koa izanen zen.

hamar eta erdietan aurreko baldintzak onartu eta 11tan obren adjudikazioa.

Bost kontratista azaldu ziren:

Pablo Goñi Ibero, Urritzako bentako nagusia.

Luis Rekarte Perez

Juan Elizalde Otxandorena, Saldiaskoa. **Etxezarrekoa.**

Francisco Intsausti Aizeaga, Orokietako **Antsonean** bizi zena.

Postura: 20.930,42 pzta. zen.

Mistoa ixiki eta itzali baino lehen hobetu behar zen postura hori. Luis Rekarte hasi zen eta zortzigarren eta azken tantoa Juan Elizaldek eman zuen, horrela 2.000 pzta jaitsez postura, %10a kasik.

Baina, sinatu baino lehen Jose Clemente Lizaso Astitz jaunak hitza eskatu eta bere protesta azaldu zuen, ez bere izenean, baizik eta Arrarats, Igoa, Itsaso, Gartzaron eta Jauntsaratsen izenean. Zer



Apeztegia. Hemengo nagusia zen Manuel Villanueva zinegotzia, hainbeste eragozpen jarri zuena. 0165



zen alegatzen zutena? Ba, subasta ordua pasa ondoren egin zela; nahiz batzarre gelako erlojuan 11ak eta bost minutu markatu, erlojua geldirik zegoen.

Ez zuen erantzunik jaso, aktan jarri alegazioa eta batzarrea 11:30ean bukatutzat jo zen; eta nahi zuen guziari emanen zitzaiola aktaren kopia (*Eta kitto, esanen zuen Eulogio Ortigosa idazkari "sorginak". Azti samarra zela entzuna genuen baina erlojuak nahi zuen tenorean gelditzen zekiena ote?*)

Jauntsaratsek ez du lurrik eman nahi.

Haurreko batzarrea eta subasta ondoren, oraindik eguna gelditzen gelditzen zenez. Bai, bi orduetan egin zuten berriz batzarrea. Zertarako eta Jauntsaratsek ez zuela lurrik emanen azaltzeko. Lanak eman eta, etxea altxatzeko lurrik ez, alajaina!

Jauntsarasko auzo guziak azaldu ziren:

Pablo Goñi Mariezkurrena
(Karakoetxea)

Felipe Altsua Erbiti **(Iturrikoetxea)**

Josefa Berroeta **(Goitikoetxea)**

Ibarreko alkateak jauntsarastarrei azaldu zien udalaren nahia eta erabakia zela Jauntsarasko hariztian altxatzea Udaletxea 160 m2 hartuta (Oraingoan toki berria eskatu zuen; **Karakoetxeko** baratzearen kontra zen hori)

Jauntsarastarrek aho batez ezezkoa eman zuten, herriak oihan gutxi zuela eta lur hori saltzen bazen, hori gutxiago. Gainera, udaletxea bertan egindakoan seguru bertan biziko zen funtzionarioak sutarako egurra eskatuko zuela. Oihan gutxi zen herrian!!!

Dena dela, hau eta hura, baina lurra ematearen alde azaldu ziren Manuel Villanueva eta Pablo Goñi, baina ez eskatutakoa.

Hiru batzarre egun berean?

Bi batzarre aipatu ditugu, goizez eta bazkal ondoren eginak. Hala ere egun hartakoak ez ziren bukatu. Atsaldeko 4etan egin zen ezohiko batzarrea, hirugarrena, subasta kontatu gabe. Zertarako eta arbitrioak kobratzen segitzeko beste sei urtez. Ibarrean saltzen ziren edari eta isurkinen gaineko zergaz egin zen (SISA izenarekin ezagunagoa zena) Horrela, zerga horrekin ordaintzen joanen ziren obrak.

Bazebiltzan, bazebiltzan...

Irailaren 8an, ostirala, eta atsaldeko 4etan egin zuten batzarrea obrak zirela eta zenbait erabaki hartzeko.

Ikaratu xamar zebiltzan egin behar zuten zorrarekin eta horretarako, obraren tamaina eta diseinua aldatu gabe, erabaki zuten zenbait adornu eta gehigarri kentzea komeni zela. Horretarako, alkatea eta kontratista Iruñera joanen ziren Aranburu arkitektoarekin biltzeko eta behar zena aldatzeko, lanak merkatze aldera.

Eta obrak egin ahala ordaintzeko, Alkateari agindu zitzaion dirua opatu zezan korrituan. Erabaki honen kontra atera ziren Manuel Villanueva eta Fermin Jaunarena dirua korrituan hartzea ez zela udalaren onerako eta (*zer nahi ote zuten korriturik gabeko dirua opatzea?*)

Bazebiltzan, bazebiltzan eta... lurrik ez udaletxea eraikitzeko

Irailaren 10ean hastekotan ziren obrak, baina nola hasi lurrik, oruberik, ez bazuten? Hor zegoen



▲ Igoako Matxineko Jose Clementeren fotografiarik ez dugu. Horren ordeez bere biloba zenarena ekarri dugu: Juan Lizaso Oderitz soldaduaarena, 1936ko gerran hila.



Basaburuko udaletxea (II)

koeka, jauntsarastarrak lurrik eman nahi ez!

Urriaren 8an, igandea, eta atsaldeko bi orduetan bildu zen udala. Zer dela eta? Ba, Jauntsaratsi eskatu zitzaion komunaleko 160 metroko lur zatittoa ez zuela emanen jakinarazteko.

Zer egin? Aho batez onartu dute biharamunean berean Diputaziora joatea batzarre honetan onartutako batzordea: Alkatea, Sekretarioa eta Miguel Iriarte kontzejala.

Diputaziora joan eta ea behartzen ahal dion Jauntsaratsi 160 metroko lur mutur hori ematea.

Emanen ote zuen bere fruitua Iruñeko joan-etorriak?

Bai, baina, ez.

Hori izan zen erantzuna: bai, baina, ez. Hori bai, Iruñean egon eta biharamunean bertan erantzun zuen Diputazioak:

-Jauntsarasko kontzejuak ez luke oztoporik jarri behar udalak

aurrera egin dezan udaletxearen egitasmoarekin, zeren obligaturik baitago udaletxea egitea. Gehiago oraindik udala prest egonik lurraren prezioa ordaintzeko.

Erabaki horren berri igorriko zitzaion Kontzejuari eta gaztigatu eskaintzeko komeni zitzaion leku bat, eta "agindu" zitzaion erantzuna berehala emateko.



Txurdan



Hiztegia

Bidezkoa: procedente

Aurreztea: ahorratzea

Veintena edo hogeikoa: Udaleko 9 kontzejalez gain, zenbait gauzetarako jende gehiago biltzen zen, hogeita bat denetara (Udala, azkeneko agintaldian bukatu zuten zinegotziak, 4-5, eta beste 7-8 lagun, Ibarreko aberatsenen artean hautatuak)

Berantetsi: impacientarse (Hemen ere ibiltzen da)

Adostasuna: konformidadea

Baldintza: condición

Azpimarratu: subrayar

Mistoa: cerilla

Tenorea: momento, hora. Hemen ere ibiltzen den hitza da.

Aho batez: unanimidad

Isurkina: líquido

Zerga: impuesto

Orubea: solar

Egitasmoa: Plan, proyecto

Gaztigatu: abisatu. Hemen ere ezagutzen dute hitz hori zaharrek.

Berueteko bidegurutzean zen lehengo Jauntsarats. Orain ziztorra bezala luzatu zaigu.



Palestina

“Sarraskiaren konplize nagusietakoa da Europa, interes propioak jokoan baititu gatazka honetan”

Bigarren belaunaldiko palestinarra da Taher Ali gaztea, alegia, erbestean jaiotakoa. Aita errefuxiatu palestinarra du, eta ama, berriz, euskalduna. Samidoun eta Al-Yudur elkarteetako kidea da bera; preso politiko palestinarren aldeko taldea da lehena, eta diasporan bizi diren gazte palestinarrena, bigarrena. Aizarotzen izan zen azaroaren 16an hitzaldia ematen, eta aukera aprobetxatu dugu elkarrizketa egiteko.

Samidoun Euskadi taldeko kidea zara. Zer da sare hori, eta zer lan egiten duzue?

Samidoun preso politiko palestinarren nazioarteko sarea da, eta helburu nagusizat du preso politiko palestinarren egoera ikusaraztea. Izan ere, ahanzturan erorita dauden presoen egoera oso latza da: milaka dira inongo salaketarik eta prozesurik gabe giltzapean daudenak. Urriaren 7ko operazioaren aurretik, bost mila preso palestinar inguru zeuden. Horietatik, 200 bat haurrak dira, eta aislamendu erregimen gogorrek sufritzen dituzte: ez dute abokaturik, ezin dute gurasoen bisitarik jaso... Urriaren 7az gerostik, baina, kopuruak nabarmen egin du gora, egunero ehunka pertsona bahitzen dituztelako. Kalkulatzen da, gutxi gorabehera, bederatzi mila inguru daudela orain preso.

Al-Yudur izeneko elkartearen ere bazabiltza.

Bai, diasporako gazte palestinarren taldea da hau, eta sustraiak ez galtzea dugu helburu. Izan ere, erbestean gaude, beste asko bezala, baina beste batzuk kapitalismo basatiaren eraginez dira migratzaile, eta, gure kasuan, kolonizazio sistema baten pean gaudelako gara migratzaile. Ez da gure lurak kolonizatzen dituztela soilik, gure kanporaketa eta garbiketa etnikoa ezinbestekoa da

haientzat. Diasporan gure arteko aliantzak egitea garrantzitsua da.

Zein da Palestinako egoera momentu honetan?

Egoera aldatu egiten da Palestinako zati batetik bestera. Alde batetik, 1948ko lurraldeak daude, gaur egun Israel bezala ezagutzen dena eta guk aitortzen ez duguna. Bertan,

herritarren %20 palestinarrek dira jatorriz, eta apartheid egoera etengabe bizi dira: ez dute politikoki antolatze eskubiderik, ezin dute hauteskundera aurkeztu salbuespen gutxi batzuk kenduta, estrategikotzat hartzen diren enpleguetarako sarbidea debekatua dute, ghettoetan bizi dira...



▲ Taher Ali

“Gazako egoera kritikoa da: etxebizitzak suntsituak, ospitaleak funtzionamendutik kanpo, medikamendu eta elikagai falta...” ”

Bestetik, Zisjordaniako herritarrak daude, ustez autoritate palestinarraren pean daudenak, baina errealitatean, okupazioaren 'kontu indigenetarako' ministeritzaren kargu daudenak. Eufemismo horien atzean, okupatzailearen esanetara jokutzen duten autoritate zipaioak daude.

Hirugarren zati bat Jerusalemgo herritarrena da, hauek egoera makurragoan bizi dira, politika askoz konpletoago bat dagoelako han. Aiton-amonen etxean bizi daiteke norbait, baina egoera ilegalean daudela adierazten dien ordena bat iristen bazaie alde egin beharra dute. Edo, herrialdetik ateratzen badira edozein arrazoi medio, bueltatzeko eskubidea galtzen dute. Kanporatze proiektua Zisjordanian baino askozaz landuagoa dute hemen.

Eta, amaitzeko, Gazako zerrenda dago, munduan inoiz egon den kontzentrazio esparrurik handiena, bi milioi pertsona bizi baitira han, pilatuak. Biztanleen %30 besterik ez dira hangoak, gehienak kanpotarrak dira, eta noski, Gazatik

atera nahi dute, baina beraien jatorrizko herrietara itzultzeko, egun Israel deitzen dioten horretara. Hamarkada eta erdi daramate blokeo egoeran Gazan. Ez dago elikagai nahikorik, ez dago landu daitekeen lur nahikorik, ur kutsatua edaten ari dira, ez dago baliabide energetikorik... duela hiru hilabetetik, egoera kritikoa da: herritarren %90 lekualdatzera behartu dute, etxebizitzak erdiak suntsitu dituzte, ospitaleak ez dira funtzionatzen ari, ez dago medikamenturik, epidemiak daude... latza da dena, genozidio bat da.

Zeintzuk dira Israelen interesak eta helburuak sarraski honekin?

Egun gobernuan dauden zenbait ministrok esan izan dute publikoki, oinarrizko helburua bere sorreratik herri palestinarra ezabatzea dela, bertako herritarrak txikitzea eta kanporatzea haien estatu arrazialaren ideia finkatzeko. Bere momentuan ez zuten lortu denak garbitzea, eta Israelen aita fundatzaileak esan zuen arazo bat zela hori, garbiketak segitu beharko zuela. "Belarra moztu", zioen. Izan ere, Israelizeneko estatu bat existitzeko aukera bakarra da sarraski puntualak egitea, bestela,



BBC



palestinar gehiengoa egonen balitz eta eskubide demokratikoak egonen balira, estatu hori biharamunean desagertuko litzatekeelako. Bestetik, zergatik du orain Israelek Gaza suntsitzeko hainbesteko presa? Bada, Gazan dagoen gaserako sarbidea lortu nahi du, eta baita itsasorako bidea emanen dion Ben Gurioneko kanalerako irteera ere. Kanal horretatik bideratu nahi dituzte itsasbideak, Europara itsasontziak pasatu ahal izateko. Horregatik da Europa gatazka honen konplize nagusietakoa: lehendabiziko interesatuak dira Gazaren suntsitzean, itsasbide hori bere mesedetara ireki ahal izateko.

Herritar bezala, zer egin dezakegu sarraski honen aurrean, zer eskatuko zenioke irakurleari?

Mobilizazioa da bidea. Elkarteren batean badabiltza, eraman dezatela Palestinako agenda taldera; instituzioetarako sarbidea duenak berdin, eraman dezala alor horretara. Israelekin harremanak etetea eskatu beharra dago, armablokeo bat, Israelekin kolaboratzen duten enpresa guztiei boikota... Eta, batez ere, palestinarren ahotsa entzun dezaten eskatuko nuke, gauzak gure mendebaldeko ikuspegitik aztertu beharrean. Irtenbide bakarra dago: palestinar guztien itzulera haien jaioterrira, haien lurraldera. Bide horretan martxan dauden borroka mota guztiak babestu beharra ditugu, baita erresistentzia armatua ere. Jordan ibaitik mediterranearen itsasora arte, Palestinar herri aske bat lortu arte. Sinesmen, erlijio eta jatorri desberdinak egonen diren herri bat nahi dugu,

“ Israelek Gazako gaserako eta Ben Gurioneko kanalerako sarbidea lortu nahi ditu sarraskiarekin ”

bere aniztasun guztiarekin. Jende askok ez baitaki Palestinan gaur egun jada badaudela musulman eta kristauak, errusiarrak, afrika beltzeko herritarrak, jatorri europear edo judutarreko herritarrak... anitza da eta horrela izaten segituko du, baina Palestinar herriaren barruan. Bi nazioen kontuak ez du lekurik hemen, hori ere sionismoaren asmakizun bat da.



▲ Aizarozko gazteek Palestinarekiko elkartasun eguna antolatu zuten abenduaren 16an

Jon Patxi Okiñenak eta Pablo Aldazek, elkarrekin eta banaka, emaitza nabarmenak

Binakakoan, elkarrekin, eta banakakoan, bakoitzak bere mailan, txapela irabazi dute. Hurrengo erronka Naiaran dute, lau t'erdiko txapelketa izanen da. Kadete mailako Pablo Aldazi buruz eta gazte kategoriako Jon Patxi Okiñenari buruz ari gara. 15 eta 16 urterekin, gatzetxoak dira oraindik, baina ongi lan eginez gero, bilakaera polita izan dezakete.

Auzako Pablo Aldaz Berasain (15) sei urterekin hasi zen esku pilotan, eta hasiera hartatik gaurdaino, Ultzamako taldean aritu da, Buruzgainen. Aitarekin jolasean hartu zion gustua eta berehala eman zuen izena: "Aitarekin hasi nintzenez gustatu zitzaidan eta horregatik eman nuen izena. Eta oso gustura ibili naiz beti, oso pozik".

Etxalekuko Jon Patxi Okiñena Santxez (16) ere aitarekin hasi zen oso txikitik, herriko plazan. Baina, ondoren, bilakaera aldakorragoa izan du: bost urterekin hasi zen Irurtzungo taldean, bi urtetara esku pilota utzi zuen, urtebetez; eta, zortzi urterekin itzuli zen. Azkeneko bi urteak Oberenan egin ditu, eta abuztutik ari da Buruzgainen: "Han pilotari askoz hobekak zeudelako joan nintzen Oberenatik. Paterrekin ikastera etorri nintzen Ultzamara".

Azkena, txapel berezia

Larraintzarren irabazi dute biek azkeneko txapela. Abenduaren 16an jokatu ziren eskuz banakako txapelketako finalak.

Pablo Aldazek kadeteetako lehenengo mailan jokatu zuen, Larraungo Nazabalen, bere ohiko arerioaren kontra. 22 eta 13 irabazi zuen. Aitor Paternain, Buruzgaingo entrenatzailea: "Pablo artista hutsa da baina ez du kolpe handirik, eta Nazabalek beti irabazi dio, txikitatik. Eskuz banakakoa da Larraungoaren modalitate gogokoena. Horregatik, Pablok ere esaten zidan, ilusio gehien egin dion txapela izan dela. Finalera iritsi baino lehen ere partida guztiak irabazi ditu, baina Nazabalek ere bai! Hori da kontua, maila gorenean dauden bi jokalarirela, eta nabari da".

Jon Patxi Okiñena Oberenako Recalderen kontra lehiatu zen, eta irabazi egin zuen, 22 eta 11: "Ez nuen espero ezer irabaztea. Urte hau ikasteko bakarrik izatea espero nuen, Paterrekin. Beraz, txokea izan da niretako. Irailetik mentalizatuta nongoen topera entrenatzeko eta ikasteko". Aitor Paternain entrenatzailearen ustez, binakakoa mugarririk izan zen Okiñenarendako: "Berarentzako hori mugarririk izan zen, ez zuelako espero horren goian egotea. Horrek ere lagundu dio gero eskuz banakakoa prestatzen eta, hor ere, txapela irabazten".

Biondako izan da garaipena are bereziagoa, txapela Larraintzarren jantzi baitute. Jon Patxi Okiñena: "Nik Labriten izango zela uste nuen, eta Ultzaman izango zela esan zutenean, harritu ninduen. Familia eta lagunak han zeuden eta giro polita zegoen". Pablo Aldaz: "Ilusio handia egin zidan horrek. Familia osoa, aiton-amonak eta lagun asko ere etorri ziren".

Bikote gisa ere, nabarmenduz

Denbora gutxi daramate elkarrekin Auzako Pollorenako Pablo Aldazek eta Etxalekuko Larrañetako Jon Patxi Okiñenak. Aipatu bezala, bizitza osoa darama Aldazek Buruzgainen. Okiñena, berriz, abuztuan sartu zen Ultzamako taldean, aurretik Irurtzunen eta Oberenan aritu ondoren. Gainera, kadete mailan ari da Aldaz; eta, gazte mailara pasatu da, honezkero, Okiñena.



Pablo Aldaz ▲



Hala ere, eskuz banakakoan, gazte mailan, elkarrekin jarri zituen Aitor Paternainek. Eraitza ezinhobea izan zen, 22 eta 15 irabazita, txapela eskuratu baitzuten: "Ez dizut gezurrik esango: Aldaz aurten kadete izanda ez nuen oso argi ikusten. Non dago oreka? Kadete izanda gazteetan jokatzera, ikasteko ongi egon daiteke, baina ez da bidezkoa ere. Jon Patxi Okiñena honera etorri zenean, esan nuen, bada, aterako zaituztet jokatzera. Eta, hau betikoa da, txapeldunak izan direnean, orduan, onena zara; alderantziz gertatu izan balitz, kontrakoa izango litzateke. Baina, beno, badakizu entrenatzaile bezala espozizio hori duzula".

Entrenatzaileak oso ongi ezagutzen du Aldaz, ibilbide osoa daramalako Ultzaman: "Txikitatik ondo aritu da. Pablok atzean jokatzan zuen, eta, ziur jokatzan zuen, txikitatik. Haur kategorian aurrera pasa nuen. Eta, haur kategoriako bigarren urtean, hau da, 13 urterekin, hasi zen jokaldiak egiten. Hasieran jendeak komentatzen zidan, aurrera pasa nuenean erokeria hutsa zela pentsatzen zutela, baina entrenatzaileak badu begi hori. Haur kategoriako bigarren urtean hasi zen kadeteko partidaren bat



▲ Jon Patxi Okiñena

ere jokatzan eta hor ikusi zitzaion zerbait berezia bazuela. Aurten kadeteetako bigarren urtea izanda, gazteetan binakako txapeldun atera izanak asko esaten du bere alde".

Okiñenak abuztutik soilik darama Buruzgainen entrenatzen, baina ongi egokitzen ari dela deritzo: "Nola funtzionatzen dugun ikaten joan da, ohitzen joan da gure lan egiteko modura. Bera ere, egia da, irakasten uzten ari da. Badauka ikasteko eta hobetzeko asko eta ondo lan egiten badu ikusiko dugu noraino heltzen den. Nik, oraindik bilakaera polit bat daukala uste dut, beraz, ikusiko dugu!".

Datozenak

Paternainek dioen moduan, ikusiko da zer datorren, baina, bitartean, eguneroko lanari eutsi behar zaio eta datozen erronkei aurre egin.

Lehenengo, lau t'erdiko finala dute Naiaran, eta hori irabaziz gero, hirugarren txapel handia eramango lukete, tripletea. Gainera, Gazteen mailan, Euskal Liga dator, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoen kontra, elkarrekin bikotea errepikatuko dute. Aitor Paternain: "Hor lan gehiago izanen dute. Urtarrilean hasiko dira, gogoz nago".

Aitor Paternain, entrenatzailea:
Pablori txikitatik ikusi zitzaion zerbait berezia bazuela. Jon Patxi denbora gutxi darama gurekin, baina bilakaera polita ikusten diot

Pablo Aldaz:
Jon Patxi Oberena klubean zegoen, baina ezagutzen nuen bere kontra asko jokatu izan dudalako. Bikote bezala oso ongi moldatu gara. Oso ona da eta mutil jatorra, gainera

Jon Patxi Okiñena:
Pablo pilotari garrantzitsua izan da niretzako, berarekin hasi bainaiz entrenatzen eta lehendik ere banekien oso ona zela. Nire burua gainditzen eta hobetzen lagundu dit



Hilabeteko eduki guztiak, gure webgunean

Irratiko kolaborazioak eta elkarrizketak noiznahi entzuteko aukera ematen du webguneak. Hemen aurkituko dituzue hilabete honetan nabarmenduko genituzkeen batzuk. Gainera, Luzia Goñiren omenaldiaren irudi eta ahots guztiak ere aurkituko dituzue.

Aurrekoetan, Egun Ero irratsaioko kolaborazio berriak ekarri dizkizuegu atal honetara. Horietaz gain, pasa den urteko batzuk ere mantendu ditugu. Esate baterako, Bakartxo Iragiren *Egunerokoari aurre egiteko gakoak* atala. Ikastetxeetan orientatzailea da Bakartxo, eta umeekin eta gaztetxoekin landu beharreko gaiak azaltzen dizkigu, hilabetean behin. Aurten, pasa den urtean aipatutako gai batzuetan sakontzen ari gara bere laguntzarekin. Gabon garai honetan, opariekin egiten ditugun gehiegikeriaz aritu gara.

Bakartxo Iragiren Egunerokoari aurre egiteko gakoak entzuteko



Hilabete honetako kolaborazioetan, gainera, gonbidatu bereziak ere izan ditugu. Kataren musika txokoan, adibidez. Albina Sturdust etorri zaigu estudiora. Erdi baztandarra eta erdi ultzamarra den artista honekin, musika entzuteaz gain, euskaraz eta generoaz hausnartu dugu Egun Ero irratsaioan.

Albina Sturdust, Kataren musika txokoan gonbidatua. Entzuteko, hemen




Dakizuenetz, ostiraletan, Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa txandakatzen dugu. Azkeneko honetan Nafarroan gelditu gara. Katakraken 10. urteurrenari erreparatu eta Iruñeko proiektu berezi honen ibilbideari erreparasoa egiteko.

Memoriaren txokoa, Katakra. Entzun hemen



Irratiko kontuez gain, agenda, Pulunpe aldizkariak...

Esan Erran irratiko edukiak bakarrik ez, noski. Azkeneko albisteak, eguneratuak, eskualdeko agenda eta Pulunpeko PDF guztiak ere, **amezti.eusen**.





Nabarmentzeko beste edukien artean ere Egun Eron egindako hainbat elkarrizketa aurkituko dituzue webgunean. Arraizko sahiesbidea eskatzeko N-121-A errepidea moztu ondoren Joxe Mari Ibarri egin geniona; edo, Aizarozko Unai Kaiet Elizalderi egindakoa, berak herriko gazteek antolatu zuten Palestinaren aldeko jardunaldiaz hitz egin zigun.

Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioko elkarrizketa guztiak hemen



Luzia Goñiren omenaldiaren ahotsak eta irudiak

Abenduaren 10ean Luzia Goñi izena jarri zitzaion Basaburuko Kultur Etxeari. Basandereak taldeak bultzatutako egitasmo hori aprobetxatuz, Aizarozko bertsolariari omenaldia egin zitzaion. Goizean, plaka inauguratzeaz gain, Aizarozko gazteek murala margotu zuten; ondoren, Joana Ziganda bertsolari imoztarrak, Ekain Alegre bertsolariak kitarraz lagunduta, Luzia Goñiren bertsoak kantatu zituen; bazkaltzeko 70

herritar bildu ziren, gero, Luzia Goñiren errezetak dastatzeko; eta, bukatzeko, bertso saioa egin zen bazkalostean: Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio eta Alazne Untxalo izan ziren.

Ekimen guztietan izan zen Luzia Goñiren familia ere. Egun polit horren ahotsak eta irudiak bildu genituen eta amezti.eus-en argitaratu.


Luzia Goñiren omenaldiko ahotsak eta irudiak



Zorionak Zorionak!



Zorionak Ortzi!



Zorionak Manex eta Unax!



Zorionak Iñaki eta Mirentxu!

Zoriondu zure laguna Pulunpen!
pulunpe@gmail.com




Euskal emakume idazleen uztako zenbait ale

Patxi Irurtzun Ultzamako liburuzainak idazten du hilero 'Zer irakurri' izeneko atal hau, baina oraingoa, Durangoko liburu eta disko azoka pasatu berri dela aprobetxatuta, Ainara Urritza erasoarrak irratian egin digun azken kolaborazioan oinarritutako liburu aukeraketa egingen dugu.

Abenduaren 6tik 10era urteroko hitzordu berezia izan dugu Durangon: liburu eta disko azokaren 58. edizioa. Milaka lagun bertaratu dira zubiko egun desberdinetan euskal kulturaren plaza garrantzitsu den azokara. Urritzak bertan aurkeztu ziren nobedadeetako batzuk aukeratu eta zerrendatxoak ekarri digu kolaboraziora. Emakumezkoen lanak dira guztiak. Zerrenda osoa entzun nahi baduzue, beheko QR bidez joan zaitezke irratiko kolaboraziora. Guk, orriotarako, Urritzaren aukeraketaren aukeraketa egin dugu.

Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain (Josebe Blanco Alvarez)

Argiak argitaratu du Josebe Blanco artzainaren eguneroko itxurako lan berezi bezain interesgarri hau. Honela dio kontrazaleko testuak: "Nola bizi da artzain bat? Galderari erantzuna baino gehiago, liburu honetan aurkituko duzu zer bizi duen artzain batek eta horrek nola zeharkatzen duen. Eguneroko batean jaso du protagonistak artaldearen urtebetea. Bizipenak, hausnarketak, borrokak, ezinak eta pozak. Gehienetan prosaz, batzuetan poesiaz. Artzaintzaren imaginario estandarrean sartzen



ez den artzaina dago orrialdeotan: emakumea, euskalduna, ekologista, barazkijalea... Bazterreko parajeetatik begiratzen dio munduari, arretaz; nahiz eta jabetu inork askok ez diela bazterrei begiratzen modernitatearen ordainpeko autopistatik".

Antzuolako Pikunieta baserriko artzaina eta gaztagilea da Josebe Blanco. Jaiotzez galiziarra izan arren, umetatik Euskal Herrian bizi izan da. Urte mordoxxa daramatza artzain, eta honako hau bere lehendabiziko liburua izan arren, aurretik hainbat kolaborazio egin izan ditu aldizkari desberdinetan.



Arrakasta (Jasone Osoro)

Eleberritik saiakerara pasako gara. Jasone Osoro idazle elgoibartarrak gai berezia hautatu du bere azken lanerako: arrakasta. Elkar argitaletxearekin atera du liburua, eta bertan, euskal kulturgintzan, kirolean nahiz bestelako alorretan ospea lortu duten zenbait lagunekin izandako elkarrizketetan bildutakoa jaso du. Zer da arrakasta, eta nola eragiten du pertsonarengan? Hauek dira liburuko protagonistak: Jon Garaño, Itziar Ituño, Izaro, Gorka Urbizu, Maider Egues, Harkaitz Cano, Eneko Atxa, Markel Irizar, Aizpea Goenaga, Eva Domingo, Joxemari Agirretxe "Porrotx.

Gaizkileen Galtzada. Leitzako dorreak (Garazi Albizua)

Pamiela argitaletxearekin atera du Garazi Albizua idazle gazteak Gaizkileen Galtzada izeneko lana. Udalbiltzaren Geuretik Sortuak kultur bekaren bidez, Leitzan egonaldia egin zuen 2021ean, eta egonaldi horretatik jaio da liburua. "Eleberririk fikzioa eta historia bilbatzen ditu XIV. mendeko Gaizkileen mugako gizartearen adierazgarri izan ziren bidelapurrak, ahaide nagusien boterea, herritik hesitu bezala basorantz bidalitako pertsonak, gosetea, Gaztelaren hasierako trikimailu maltzurak eta, oro har, giroa gogortzen zuten botere nahiaren ustelkeria sarea adierazteko".



Maitasun kapitala (Karmele Jaio)

Azokako liburu salduenen artean dago Karmele Jaio idazle ezagunaren azken lana: Maitasun kapitala. "Emakume ahaldundua eta kontzientziatua izan arren, liburuko protagonista bere bikotekideak abandonatzen duenean pott eginda geratzen da, eta galdera sortzen da orduan: zer da maitasuna gure bizitzetan? Nola konfiguratu gaituzte, beste alor guztietan pertsona independenteak izan arren, harreman sentimentaletan hain menpeko eta zaurgarri izateko?". Maitasunaren inguruan pentsatzera eta hausnartzera bultzatu nahi gaitu eleberririk honen bidez idazle gasteztarrak. Euskadi Literatura saria jaso zuen Aitaren etxea eleberririk entzutetsuaren ondotik dator azken hau.



2023ko azaroa

2023ko azaroan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ULTZAMA Arraitz

Aimar Jaunsaras Echeconanea, **Fermiñenan** sortua, azaroaren 5ean. Asier eta Olaiaren semea.



▲ Aimar, Fermiñeneko printzea

ULTZAMA Auza

Martina Beratsain Jerico, azaroaren 28an sortua. Ioseba eta Mariaren alaba.



▲ Iñigo pozarren bere arreba Martina sortu berriarekin

ULTZAMA Iraizotz

Luar Iribarren Azpirotz, azaroaren 14an sortua. Ander eta Mainerren semea.



▲ Iraizoko guraso berriak, Ander eta Maider

Ezkontzak:

Guk dakigularik, azaroan ez da ezkontzarik izan.

Heriotzak:

ATETZ Beratsain

Hector Cabeza Goñi, **Antsoneko** semea, azaroaren 5ean hil zen, 45 urtetan.

“ Zure maitasuna, gelditzen zaiguna ”

BASABURUA Jauntsarats

Juan Muguruza Lazkano, **Etxeberriko** nagusia, azaroaren 12an hil zen, 81 urtetan.



▲ Juanito

“ Zorionak gurasoei ”

ULTZAMA Lizaso

Maria Belen Ermigarate Zenotz, **Deskargebideko** alaba, azaroaren 8an hil zen, 56 urtetan.

OHARRA

Irakurle, zure familiako jaiotza, ezkontza edo heriotzaren bat Pulunpen jarri ez badugu, dei iezaguzu lehenbailehen, hurrengo zenbakian zuzendu dezagun.

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





2023ko Zozketa mundiala

Sarien zerrenda



x3

Asteburuko bidaiak
2 lagunentzat



x3

Elgorriagako bainu
etxean asteburuko
egonaldiak



x2

Landetxetan
egonaldiak




x18

Bazkari edo afari
bikoitz (inguruko
ostatuetan)



x10

Txerri gizen



x10

Axuri eder

8 Esneki sorta
30 Saskitto
25 gazta
Eta... beste anitz sari

saridunen zerrenda
amezti.eus-en

Zorionak!